BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

111

AGINDUA, 2014ko abenduaren 3koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Horren bidez erabaki da Bilboko Olabeaga auzoko mugaketa berrira zabaltzea Birgaitze Integratuko Areentzako oro har finkatuta dagoen finantzaketa kualifikatua.

GERTAKARIAK

1.– 2013ko urriaren 3an, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak erabaki zuen Bilboko Olabeaga auzora zabaltzea Birgaitze Integratuko Areentzako oro har finkatuta dagoen finantzaketa kualifikatua.

2.– 2014ko maiatzaren 14an, Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarteak, SURBISAk, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari igorri zion Olabeaga Auzoko Area Degradatuaren mugaketa aldatzeko eskaera; eremuan, Olabeaga aldapako 14. zenbakiko eraikina sartu behar da, eta hasieran zeuden 37 etxebizitza-eraikinei eta inguruneei gehitu; era horretan, mugaketa 38 etxebizitza-eraikinek eta inguruneek osatuko dute. Eskaeran daude eremu berriaren mugaketa-planoa, deskribapen- eta justifikazio-memoria eta azterlan soziourbanistikoa.

3.– Espedientean jasotzen diren azken agirietan, hau da, Surbisak aurkeztutako mugaketa planoan, eremu berri horren jarduera-esparrua mugatzen da, eta hori Agindu honekin batera doan planoan zehazten da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila da espediente hau ebazteko organo aginpideduna, Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren 16. artikuluan eta abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eskaera data kontuan izanda hori baita aplikatzeko araudia.

2.– Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Saileko buruak Birgaitze Integratuko Areentzako finkatuta dauden diru-laguntzak eman ahal izango dizkie –horretarako Agindua emanda– aipatutako Dekretuaren 9.2 artikuluan definitutako eremuei, salbu area horiek kudeatu eta burutzeko Birgaitze Plan Berezia idatzi behar denean.

3.– Kasu honetan bete egiten dira 317/2002 Dekretuaren 9.2 artikuluan finkatutako baldintzak, hau da, degradazio ekonomiko-soziala eta hirigintza-arkitektonikoa. Ondorioz, Area Degradatutzat hartu da Bilboko Olabeaga auzoko mugaketa berria, Etxebizitza Zuzendaritzak 2014ko abenduaren 1ean emandako txostenaren arabera.

XEDATU DUT:

Baimentzea abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezartzen diren Birgaitze Integratuko Areentzako diru laguntzak ematea Bilboko Olabeaga auzoko mugaketa berrian egingo diren babespeko birgaitze-jardunei. Mugaketa berria Olabeaga aldapako 14. zenbakiko eraikinak eta hasierako 37 etxebizitza-eraikinek eta inguruek osatzen dute.

Agindu honi erantsita doan planoko mugaketak ordezkatu egiten du 2013ko urriaren 3an Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren aginduan erantsita dagoen planokoa.

Agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari edo, bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 3a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.


BILBAO
ÁREA BARRIO OLABEAGA
LÍMITE DEL ÁREA
OLABEAGA AUZOA EREMUA
EREMUAREN MUGA